

II ATALA: Farmakologia Aplikatua: Egoera bereziak

1. Farmakoen erabilpena haurdunaldian (8 Gaia)

Aipatu farmako hauek haurdunaldian seguruak diren eta FDAREN sailkapenean ze mailakoak diren:

Amoxizilina + azido klabulaniko

Segurua da. Sailkapenean B mailakoa

Metronidazol

Arretaz erabili. Sailkapenean B mailakoa

Doxiziklina

Ez da segurua. Kontraindikatua haurdunaldian. Sailkapenean D mailakoa

Parazetamol

Segurua da. Sailkapenean B mailakoa

Ibuprofeno

Segurua 1-2 hiruilabeteetan (B maila). Kontraindikatua 3. hiruilabeteetan

Diklofenakoa

Kontraindikatua. B/D mailak

Lidokaina + adrenalina

Erabilpen segurua haurdunaldian. B maila (lidokaina) eta C (adrenalina)

Artikaina + fenilpresina

Kontraindikatua. Artikaina segurua dirudien arren (C maila), fenilpresinarekin abortuak eta sasoi aurreko erditzeak ikusi dira.



2. Farmakoen erabilpena edoskitzaroan (8 Gaia)

Odontologoak metronidazol preskribatu behar du edoskitzaroan dagoen emakume bati. Segurua da tratamendua? Ze informazio/gomendio emango lioke?

Metronidazola kontraindikatua dago edoskitzaroan, amaren esnean iraitzen bait da eta jaioberriarentzat kaltegarria izan daiteke. Metronidazola hartzea beharrezkoa bada, egun batzuetan edoskitzaroa uztea gomendatzen da.

3. Farmakoen erabilpena zahartzaroan (9 Gaia)

Europako Geriatria Batzordeak zahartzaroan preskripzio ez-egokiak antzemateko asmoz proposatutako STOPP-START irizpideen arabera, aztertu hurrengo preskripzioak eta aukeratu START edo STOPP kasu bakoitzean emandako egoera klinikoetan (ariketa egiteko tresna: INFAC 23, 2 zenbakia, 2015).

http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/cevime_infac/es_cevime/adjuntos/INFAC_Vol_23_n_2_revisando%20medicacion%20anciano.pdf

	STOPP	START
Ibuprofeno eta hipertentsio arteal larria duen pazientea	X	
Acenocumarol AAS-arekin elkartua	X	
AEBI (IECA) eta bihotz gaixotasun kronikoa duen pazientea		X
Tiklopidina	X	
Warfarina eta fibrilazio aurikular pairatzen duen pazientea		X
Omeprazol eta 150 mg AAS/egunean hartzen duen pazientea		X
Libragarria eta fentanilo hartzen duen pazientea		X
Ipratropio bromuroa eta angelu estuko glaukoma duen pazientea	X	

4. Farmakoen erabilpena pediatrian (10 Gaia)

Mikel kontsulta odontologikora doan haurra da, anestesiko lokalen erabilpena eskatzen duen aho-prozedura egitera. Bere pisua 18 kg delarik eta pediatrian lidokaina gehienezko dosia 4,4 mg/kg pisuko dela jakinik, gehienez zenbat lidokaina kartutxo (lidokaina %2) eman diezaioke odontologoak haur honi?

Haur honi gehienez 79,2 mg lidokaina eman diezaiokegu (4,4 mg x 18 kg). Kontuan izanda lidokaina %2 (20 mg/ml) kartutxo bakoitzak (1,8 ml) 36 mg lidokaina daukala, gehienez 2 kartutxo eman diezaiokegu Mikeli (79,2mg gehienez/36mg kartutxoko = 2,2 kartutxo).

